

Haurrak eta nerabeak babesteko eta ongi tratatzeko erakunde-konpromisoa hitzartu dute Pasaiaiko zinegotzi guztiek, Haurren Eskubideen Nazioarteko Egunean bertan eta umeak protagonismo berezia izan zuten Udalbatzan. Hi-

tzarmen honekin Udalak bere gain hartu du gaiarekiko duen erantzukizun publikoa. Horretarako udal sailen arteko lankidetzak sustatuko du, sailen arteko batzorde bat eratu. Berrikuntza hau gainera, nazioartean aztertua izan da.

Pasaiaiko Udalak bere gain hartu du haur eta nerabeen babesa

GARA | PASAIA

Haurren Eskubideen Nazioarteko Egunean, haur eta nerabeak protagonista bilakatu zituen Pasaiaiko Udalak eta haiek babesteko eta ongi tratatzeko udal plana onartu zuen atzo. Udalaren aburuz, «haurrei tratu ona eta babesa ematea da babesgabeziaren prebentziorako modurik onena»; hori dela-eta, Udalaren esku-hartzean gai hau ardatz nagusi bilakatu dute.

Alderdi politiko guztiek bat egin zuten atzo egitasmoa aurkezteko agerraldian. Aurretik, ordea, Udalbatza berezia egin zuten Pasaiaiko ikastetxeetako umeak ikus-entzule gisa gonbidatuz eta haiei hitza emanez.

Lau hurrek, zinegotzi eginkizunak bere eginez, aurkeztu zituzten, euskaraz eta gaztelaniaz, Udalak aho batez hartutako konpromisoak.

Herriko haurrentzako eta nerabeentzako babesa eta tratu ona sustatzeko asmo horretan, Pasaiaiko Udalak erantzukizun publikoa bere gain hartu du aurkeztutako plan honekin. Pozik agertu zen Obdu Lorenzo, Gizarte Zerbitzuen zinegotzi ordezkaria,



Makina bat ume bildu zen Pasaiaiko udal aretoan; gainera, batzuek zinegotzi gisa jardun zuten.

Gari GARAIALDE | ARGAZKI PRESS

ria, eta «sentsibiltate oso desberdinen gainera, konpromiso sendoak hartu direla» adierazi zion GARARI.

Adostutako plana aurrera eramateko, gainera, sailen arteko lankidetzak garatu nahi dute Pasaian. Zehazki, Gizarte Ekintza,

Kultura, Hezkuntza, Euskara, Gazteria, Kirolak, Migrazioa eta aniztasuna eta Udaltzaingo sailak barnean hartzen dituen sailen arteko batzordea osatu dute Udalean, eta Arbutz elkartearen laguntza izango dute egitasmoa garatzeko.

Sailen arteko batzorde honen sorrera «erabat berritzailea» dela nabarmendu zuen Lorenzo eta horren erakusle da umeen zaintzari buruz egindako hainbat nazioarteko biltzarretan Pasaiaiko ekimena aztertu izana. Orain artean, Argentinan eta

Lisboan izan diren bilkuretan aztertu dute Pasaiaiko eredu eta datorren astean, Kantabriar eta Brasilen izango dute Pasaia mintzagai.

Udal planaren helburuak aurkeztu zituzten agerraldian eta lau ildotan zehazten dira: Pasaiaiko haur eta nerabeak babestea eta ongi tratatzea; Udala erantzukizun publikoaren jabe egitea; sozializazioa; eta guztion parte-hartzea bultzatzea.

Parte hartzea helburu

Plana gainera, bi zatitan banatu dute. Lehena, Udaleko teknikari arduradunei prestakuntza eta laguntza ematean eta gizarte eta erakunde eragileekin aritzeko hobekuntzak egitean datza. Bigarren zatia aldiz, datozen bi urteetan garatuko da eta bertan Pasaiaiko herritarrak izango dira protagonistak.

Lorenzok garrantzi berezia eman nahi izan dio pasaitarren parte-hartzeari eta hartara, agerraldian esan bezala, erantzukizun partekatua printzipioa ezarriko dute, herritarrek zein eragileek planaren garapenean esku-hartzea izan dezaten eta herritar guztiek haurrentzako tratu ona eta babesa sustatu dezaten. Herritarren parte-hartzea indartzeko asmoz atzoko agerraldiarekin eman zioten hasiera hedatu nahi duten kanpaina komunikatiboari, eta Lorenzo iragarri zuen bezala, makina bat ekimen izango dira laster Pasaia aldean.

Euskaraz bizitzeko eskubidearen alde

EUSKARA ofiziala

ORAIN

manifestaldia azaroak 22 17:00etan

golem

La Cámara de Gasteiz insta a BBK a respetar a los ancianos de Reina de la Paz

GARA | GASTEIZ

La Comisión de Derechos Humanos de la Cámara de Gasteiz instó ayer a BBK y a la Diputación vizcaína a que paralicen el desalojo de la residencia Reina de la Paz, en el bilbaino barrio de Ibarrekolanda, y atiendan las demandas de los ancianos.

En el debate se denunció que los afectados y sus familias conocieron los planes de la Caja a través de los medios de comunicación. Además, se informó de que 150 usuarios que rondan los 85 años se niegan a abandonar el centro a pesar de las presiones de la entidad que preside Xabier de Irala. El PNV defiende la operación y el desalojo.



APOYO A LOS «SIN HOGAR». A convocatoria de la plataforma BesteBi, decenas de ciudadanos se concentraron ayer en las torres de Isozaki, en Bilbo, para reivindicar amparo institucional y social para el centenar largo de personas «sin hogar» que habitan en las calles de la capital y en otras localidades vizcainas.

Marisol RAMIREZ | ARGAZKI PRESS